

JARDUERA UTZI OSTEKO BABESA

ITSASOKO LANGILEEN
ERREGIMEN BEREZIAN



Zure momentu zailetan
zuri laguntzeko gaude
.....

AURKIBIDEA

- 
- 2 ZER DA?
 - 2 ONURADUNAK
 - 3 BETEKIZUNAK
 - 4 KAUSAK
 - 6 ESKABIDEA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA
 - 7 IRAUPENA
 - 8 ZENBATEKOA
 - 9 ETETEA ETA BERRIZ EKITEA
 - 10 IRAUNGITZEA
 - 10 PRESTAZIO BAT AGORTU ETA JASO AL DAITEKE BERRIZ BESTE BAT?
 - 10 FINANTZA-ARAU BIDEA ETA PRESTAZIOEN KUDEAKETA
 - 11 JARDUERA EKINTZAILEA SUSTATZEKO KONPROMISOA
 - 11 ARAUBIDEA





Zer da?

Itsasoko Erregimen Berezian, norberaren konturako langileek babes-sistema espezifiko bat dute jarduera uzten dutenerako, baldin eta, haiekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, lana erabat utzi behar badute aldi baterako edo behin betiko.

Jarduera uzteagatik dagoen babes-sistema Gizarte Segurantzaren barruko babes-egintza bat da, borondatezkoa, eta hauek hartzen ditu: alde batetik, jarduera erabat uzteagatik hileko prestazio ekonomiko bat eta, bestetik, Gizarte Segurantzari kontingentzia arruntengatik egin beharreko ekarpena.

Urte bakoitzeko urriaren 1a baino lehen dute aukera norberaren konturako langileek jarduera uzteagatik dagoen estaldura hartzeko edo hari uko egiteko, eta hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak egiten duten aukerak.

Jarduera uzteagatik emango den prestazio ekonomikoa osatzeko, prestakuntzako eta laneratzeko jarduerak eskainiko zaizkie, berriz ere lan-merkatuan sartzeko bidea errazteko. Jarduera horiek autonomia erkidegoek edo Itsasoko Gizarte Institutuak kudeatuko dituzte.

Onuradunak

Jarduera utzi osteko babes-sistemaren barruan sartuko dira norberaren kontura aritzen diren langileak, bai eta ontzien armadoreak ere, baldin eta, ontzi horretako enpresaburu izanda ere, zerbitzuak ematen badituzte ontzian, beste tripulatzaille bat gehiago bezala errolatuta egonik, eta zenbateko txikiaren parte bat jasotzen badute, zatikako ordainketa sistema erabiliz, edo, bestela, soldata bat gainerako tripulatzailleek bezala.



Betekizunak

... Afiliatuta eta alta emanda egotea Itsasoko Langileen Erregimen Berezian.

... Erregimen horretan baja eskatzea jarduera uzteagatik.

... Jarduera uzteagatik dagoen gutxieneko kotizazio-aldia bete-ta edukitzea (jarduera uzteko egoera gertatu aurreko 12 hilabete jarraian; jarduera uzteko gertaera izan den hilabetea ere hartuko da aintzat kontaketan).

... Jarduera uzteko lege-egoeran egotea.

... Jarduera-konpromisoa sinatzea eta berriz ere lan-merkatuan sartzeko erabateko prestasuna duela egiaztatzea, dagokion autonomia erkidegoko enpleguko zerbitzu publikoak edo Itsasoko Gizarte Institutuak deitzen dituzten prestakuntza-jardueretan, lanbide orientaziokoetan eta jarduera ekintzailea sustatzekoetan parte hartuz.

... Kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea izateko kasu bakoitzean eskatzen den adina beteta ez izatea; salbuespena erretiroa izateko eskatutako kotizazio-aldia egiaztatuta ez izatea.

... Gizarte Segurantzarekiko kuotak ordainduta izatea.

... Legean jasotako bateraezintasunik ez izatea.

... Itsasoko langile autonomoak beste langile bat edo gehiago badu bere kargura, lan-legerian araututako bermeak, betebeharrak eta prozedurak bete behar ditu jarduera utzi aurretik.

Kausak

Prestazioa jasotzeko eskubidea izateko, ezinbestekoa izango da frogatzea jarduera uzteko kausa hauetakoren bat izan dela:

1. Jarduera ekonomikoarekin eta profesionalarekin jarraitzea bideraezina egiten duten **arrazoi ekonomiko, tekniko, produktibo edo antolaketakoak**.

... Jarduerak galerak eragitea urte oso batean, aldi berean lortutako diru-sarrerren ehuneko 10 baino handiagoak, jarduera hasi zeneko lehen urtea alde batera utzita.

... Betearazpen judizialak edo administratiboak izatea organo betearazleek onartutako zorrak kobratzeko, baldin eta gutxienez aurreko ekitaldi ekonomikoan izandako diru-sarrerren % 30ekoa bada kobratu nahi den zorra.

... Jarduerarekin jarraitzea galarazten dion konkurtsoaren deklarazio judizial bat izatea, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera.

Kausa hori egiaztatzeko eskatzailearen zinpeko deklarazioa beharko da, eta deklarazio horri, adierazitako arrazoiaren arabera, jarduera bideragarria ez dela justifikatzen duten kontabilitateko agiriak, agiri profesionalak, zerga-agiriak, administraziokoak edo judizialak gehitu beharko zaizkio, eta, gainera, idatziz jasota geratu beharko da adierazitako arrazoiak zein egunetan sortu diren.

Ontzien titularren kasuan, tripulatzaile-zerrenda utzi beharko dute dagokien Itsas Kapitaintzan.

2. Jarduera ekonomikoa edo profesionala aldi baterako edo behin betiko uztea behartzen duten **ezinbesteko** arrazoiak izatea.



... Institutu honek emandako deklarazioaren bidez egiaztatzen da, zeinak onartu egingo duen ezinbesteko arrazoi bat gertatu dela.

... Horretaz gain, jarduera aldi baterako edo behin betiko uztea eskatu duenaren zinpeko deklarazio bat beharko da. Deklarazio horretan jaso behar du noiz gertatu den ezinbesteko arrazoia eta, gainera, egoera hauen berri zehatz eman-go duten agiriak gehitu behar ditu, beharrezko iruditutako froga-bideak erabilia: zer gertatu den, zergatik ezin izan den gertaera aurretik jakin edo jakin izan bada ere zergatik ezin izan den saihestu, jarduerarekin jarraitzeko ezintasunarekin zer erlazio duen, adieraziz ezinbesteko arrazoia erabakigarria den jarduera behin betiko edo aldi baterako uzteko, eta aldi baterako bada, jarduera zenbat denborarako uztea kalkulatu den, bai eta organo kudeatzaileari egoera hori izan dela deklaritzen lagunduko dion beste edozer alderdi ere.

3. Administrazioko baimena galtzea, baldin eta baimen hori jarduera gauzatzeko beharrezkoa bada, eta arau-hauste penalak egiteagatik izan ez bada.

... Baimena ukatzeko edo baliogabetzeko ebazpenaren bidez egiaztatuko da.

4. Genero indarkeria, langile autonomia jarduera uztera behartu baitu aldi baterako edo behin betiko.

... Eskatzaileak bere jarduera ekonomikoa edo profesionala utzi edo eten behar izan duela idatziz adierazita egiaztatuko da; horri legean jasotako agiriren bat gehitu beharko zaio, hala nola babes-agindua edo indarkeria zantzuak izan direla jasotzen duen Fiskaltzaren txostena.



5. Dibortzioa edo ezkontideak banatzeko erabakia, baldin eta dibortziatu edo banandu den langile autonomoak banandu den bikotekidearen negozioan familia-laguntza ematen bazuen, eta hori egiteari utzi badio ezkontza harremana hautsi edo ezkontideak banandu direlako.

... Honela egiaztatu behar da: ebazpen judizialaren bidez eta ezkontza harremana hautsi edo ezkontideak banandu aurretik negozioan ematen zen zuzeneko familia-laguntza emateari utzi diola jasotzen duten agiriaren bidez.

Jarduera **borondatez eten edo uzten bada**, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak **ez du jarduera uzte hori legezko egoeran izan denik kontuan hartzen**.

Eskabidea aurkezteko lekua eta epea

Langileak nahitaezko betekizun guztiak betetzen baditu eta jarduera uzteko legezko egoeran badago, jarduera uzteagatik duen babesa izateko eskubidea onartzeko eska dezake Itsasoko Gizarte Institutuaren edozein probintzia- edo toki-zuzendaritzatan, erakunde horrek estaltzen badizkio kontingentzia profesionalak, edo, bestela, kontingentzia profesionalak estaltzen dizkion mutualitatearen edozein egoitzatan.

Jarduera utzi duen hurrengo hilabetearen azken egunean bukatzen da jarduera utzi osteko prestazioa onar diezaioten eskatzeko epea. Eskabidearekin batera, eskatutako gainerako egiaztagiriak ere aurkeztu behar dira.

Onarpen horrek dagokion prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea emango dio jarduera uzteko gertaera izan den hurrengo hilabetetik aurrera; horretaz gain, kontingentzia arruntengatik or-

daindu beharreko Gizarte Segurantzaren kotizazioak ere ordainduko dizkiote prestazioak irauten duen bitartean.

Ezarritako epea igaro ondoren aurkezten badu eskabidea, epea bukatu zen egunetik eskabidea aurkeztu zuen egunera bitarte dauden egunak deskontatuko dizkiote prestazio ekonomikoa jasotzeko alditik.

Iraupena

Jarduera utzi osteko prestazioa zenbat hilabetetan kobratuko den jakiteko, adinari eta jarduera uzteko izan den legezko egoeraren aurreko 48 hilabeteetan kotizatutako aldiei begiratuko zaie, taula honetan ageri denari jarraituz:

Kotizatutako hilabeteak	Iraupena 60 urtetik beherakoentzat	Iraupena 60 urtetik gorakoentzat
12 hilabetetik 17ra	2 hilabete	2 hilabete
18 hilabetetik 23ra	3 hilabete	4 hilabete
24 hilabetetik 29ra	4 hilabete	6 hilabete
30 hilabetetik 35era	5 hilabete	8 hilabete
36 hilabetetik 42ra	6 hilabete	10 hilabete
43 hilabetetik 47ra	8 hilabete	12 hilabete
48 hilabete	12 hilabete	12 hilabete



... Garrantzitsua da kontuan hartzea prestazioa jasotzeko **ezinbesteko dela jarduera utzi aurreko etenik gabeko hamabi hilabeteak kotizatuta edukitzea.**

Itsasoko Langileen Erregimen Berezian, ez dira kontuan hartzen eskumena duen agintaritzak onartutako nahitaezko debekualdiak jarduera uzteko legezko egoera gertatu den aurreko etenik gabeko hamabi hilabeteen kontaktetan, baldin eta debekualdi horietan ez bada jasotzen aritu jarduera utzi osteko prestazioa.

... Dagokion Erregimen Bereziari jarduera uzteagatik egin dako **kotizazioak bakarrik hartuko dira kontuan**, baldin eta ez badira zenbatu antzeko izaera duen aurreko beste eskubide bat onartzeko.

Zenbatekoa

Oinarri arautzailearen % 70 izango da prestazioaren zenbatekoa, zeina jarduera uzteko legezko egoera gertatu aurreko 12 hilabeteetan langileak kotizatutako oinarrien batez bestekoaren araberak kalkulatu den, kotizazioaren koefiziente zuzentzaileak aplikatu gabe.

Gehienez ere Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) % 175 jasoko du langileak prestazio gisa, langileak seme-alaba bat edo gehiago dituen kasuan izan ezik. Kasu horretan, adierazle horren % 200 edo % 225 izango da zenbatekoa, hurrenez hurren.

Gutxienez, berriz, adierazle horren % 107 eta % 80 artean, prestazioa eskatuko duen langileak bere kargura seme-alabarik baduen edo ez.



Etetea eta berriz ekitea

Prestazioa eten egingo da kasu hauetan: arau hauste arin edo larriagatik zehapenen bat jarri badiote langileari, askatasuna kendu dion kondena bat betetzeko, norberaren kontura edo beste baten kontura 12 hilabete baino gutxiagoan lan egin behar badu, bizilekua atzerrira aldatu badu segidako 12 hilabete baino gutxiagorako lana bilatzeko edo egiteko, lanbidean trebatzeko edo nazioarteko lankidetzan aritzeko, eta urtean behin bakarrik 30 egun natural baino gutxiagorako atzerrira ateratzen bada, baldin eta betiere prestazioa kudeatzen duen organoari esan badio eta horretarako baimena eman badio.

Etenaldiak prestazio ekonomikoa kobratzeari eta hilabete osoak kotizatzeari uztea dakar, baina ez dio eragingo prestazioa jasotzeko aldiari, zehapenen kasuan izan ezik.

Horrenbestez, ezingo dira aldi berean prestazioa jaso eta norberaren kontura edo beste inoren kontura lan egin, Gizarte Segurantzaren prestazioak edo pentsioak jaso edo flotarako laguntzak jaso.

Interesdunak eskatuta ekingo zaio berriz ere babesa jasotzeari. Prestazioa etetea ekarri zuen arrazoia bukatu dela eta jarduera uzteko legezko egoerak bere horretan jarraitzen duela egiaztatu beharko du. Prestazioari berriz ekiteak esan nahi du jasotzeke geratu zen prestazioa jasoko dela.

Etenaldia ekarri zuen arrazoia bukatu den egunetik aurrea sortzen da prestazioa berriz jasotzen hasteko eskubidea, eta etenaldia ekarri zuen arrazoia bukatu eta hurrengo 15 egunen barruan eskatu behar da. Eskabidea epe hori amaitu ondoren aurkezten bada, deskontatu egingo dira aurkeztu behar zen egunetik aurkeztu zenera bitarteko egunak. Etenaldia norberaren konturako





lan batengatik izan bada, lana bukatzeak jarduera uzteko legezko egoera eragiten diola egiaztatu behar du langileak, eta jarduera utzi osteko hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera izango du berriz prestazioa kobratzen hasteko eskubidea.

Iraungitzea

Kasu hauetan iraungiko da jarduera utzi osteko babesa izateko eskubidea: prestazioa jasotzeko epea agortzen denean, norberaren kontura edo beste baten kontura 12 hilabete edo gehiagoko lan bat egiten denean, zehapen bat jasotzen denean eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 341. artikuluan jasotako gainerrako kausak gertatzen direnean.

Prestazio bat agortu eta jaso al daiteke berriz beste bat?

Bai, baina beste prestazio bat izateko eskubidea onartzeko 18 hilabete igaro behar dira aurreko prestazioa iraungi zenetik, eta ezarrita dauden lege-baldintzak ere bete behar dira.

Finantza-araubidea eta prestazioen kudeaketa

... Langile autonomoen ekarpenen kontura finantzatuko da.


... Kudeaketa, berriz, langile autonomoak lanbide kontingentzien estaldura hitzartuta duen mutualitateak egingo du edo Itsasoko Gizarte Institutuak, bestela, kontingentziak erakunde horrek estaltzen baditu.



... Prestakuntza-neurriak, lanbide orientaziokoak eta jarduera ekintzailea sustatzekoak, bestalde, enpleguko zerbitzu publikoak kudeatuko ditu.

Jarduera ekintzailea sustatzeko konpromisoa

Jarduera utzi osteko prestazio ekonomikoa jasotzen duten guztiek konpromisoa hartu behar dute prestakuntza-, berrikuntza-, sustapen- eta hobetze-neurri guztiak betetzeko, aurretik egiten zuten jarduera ekonomikoari edo profesionalari berriz ere ahalik eta lasterren ekiteko.



Araubidea

8/2015 Errege Dekretu Legegilea, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena (BOE 261. zk, 2015eko urriaren 31koa).

1541/2011 Errege Dekretua, urriaren 31koa, langile autonomoak jarduera utzi ostean babesteko berariazko sistema ezartzen duen abuztuaren 5eko 32/2010 Legea garatzen duena (BOE 263. zk, 2011ko azaroaren 1ekoa).

Zure momentu zailetan zuri laguntzeko gaude



Edita

Instituto Social de la Marina

Diseño y realización

Estudio Fraile de Tejada

NIPO: 273-16-030-1

Depósito Legal: M-36423-2016

Reservados todos los derechos: Ni la totalidad ni parte de este folleto pueden reproducirse o transmitirse por medios electrónicos o mecánicos, así como las fotografías o ilustraciones sin permiso escrito del Instituto Social de la Marina.

Toda la información de este folleto queda al amparo de la ley vigente de Propiedad Intelectual.

